

FOREL


Armanak Uskara

edo


Z

iberouko Egunaria

1894 gerren ourtheko



Jinkoa eta Herria !
Zuhurtarizona eta lana !
Eta bizi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !



SALTZEN DA

Maolen
 DETCHEVERRY enian

Alharratzen
 CAUTURE enian
 MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezioa : BI SOS



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argigazi oso.
- ⊙ " Argigazi azken laordena.
- ⊙ " Gorapen hastia *edo* argigazi berri.
- ⊙ " Argigazi lehen laordena.

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharilako* 21^{an}; — HAOSTE, *baranthailako* 7^{an}; — BAZKO, *martchoko* 25^{an}; — ERROGAZIONIAK, *aphir.* 30ⁿ, *maiatzeko* 1ⁿ eta 2^{an}; — SALBATORE, *maiatzeko* 3^{an}; — PHEN-TEKOSTE, *maiatzeko* 13^{an}; — BESTABERRI, *maiatzeko*, 24^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentuko* 2ⁿ.

LAOR THENPORAK :

Baranthailako 14 ⁿ , 16 ⁿ eta 17 ⁿ .	}	Buruilako 19 ⁿ , 21 ⁿ eta 22 ⁿ .
Maiatzeko 16 ⁿ , 18 ⁿ eta 19 ⁿ .	}	Abentuko 19 ⁿ , 21 ⁿ eta 22 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhuntez phartezkoa martchoko 21^{an}; ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Ekhi ulhuntez osoa, jorrailako 5^{an}; ezta ikhousiren Uskal-Herrian. — Argizagi ulhuntez phartezkoa, buruilako 14^{an}; pharte ikhousiren da Uskal-Herrian. — Ekhi ulhuntez osoa, buruilako 28^{an}; ezta ikhousiren Uskal-Herrian.





AZKEN BOZKA

USKAL herri khiristiak eztu espanto egitekorik igan bozkaz, eta berhezeki Ziberoak. Goure herriak eztu deputatu chouribat ere izentatu. Orai artekan guntian biek badutie ordari gorriak, ezpeitirade segur haien aitzinekoak bezain karako hullanik ere. Ziberotar hanitchek eman tie botzak Erreljioniaren galtzetan eginik diren legiak ounhesten dutian bati, haien eginbidia zelarik ahal orenen egitia lege tzarren idoke-razteko.

Eta hatik botzaren emaitiak baderio beithari eginbide izigarria, ondorio haraintienak dutiana algarren arteko bizitziarentako; ezta noulako nahi lana deputatubaten izentatzia, eta nour berak bere botz emanez Jinkoari beharko du khountu eman, goiz edo berant: «Gogo emazie, zioan behin goure aphezakupiak, botza, gorde izanik ere gizounentzat, ezatekiala gorderik Jinkoarentako... Ountzian ezarten dutuzien paperak zabalturik lehentze lurrian, berriz ere zabalturik dirate heriotziaren ondoko jujamentian.»

Botzemaile bakhowitzak horik gogoan erabili dutia emaiteko paperaren haitatzian? Dudatzeko da hainbeste botz emanik izan direlakoz «khiristi izena batere merechi etzien» gizoun elibati, eta, Aita Sainiaren erakouspenen aitzitik hanitchek «gorago etsi beitutie Erreljioniaren etsaiak.»

Badakigu zer nahi egin diela botzemaile khiristien khordoka erazteko; hanitchek lekhan, errejentak errabiaturik bezala ziren gorrien althe; oraikoan echabaki egin die bere jokia, Uskal herrian ja, baten mehatchatzez bester sos eskeintzez botzaren sari. Oihanzañek ere zer eztie egin gobernu gorriaren althe ziren deputatugaien hounetan, berheziki Basaburian? Erran die ere

Maoleko ondoetan M. Etcheverrik ogia nahi ziala khario erazi, uduri ogi bihiaren amiñibat khariotziak khanbia erazten dian ogi erriaren prezioa.

Zounbait lekhutan gaseta gorriek ukhen die hounen izkiribatzeke bekhokeria : « Khiristi botzemaile ak ea ziek, aphezkupehri hontako aphezak, orhit zitaie, bozka hastera beitoa, botza emaites edo eman eraztez *réactionnaires* direner (eta hola deitzen dutie deputatu gei katolikoak) zinez desobedi zinirokiela Aita Sain-tiaren erakouspener. » Goure herrian ereazkenthorian, gezurtatzeko denborarik etzenian, eztieia hori uduri *Az-ken hitza* zen pierrotkeria murru orotan ezari eta igorri botzemaile guzier gezurrez hanturik ziren letera elibat? Noulaz khiristi botzemaile hanitch eztira behar bezala egon bere beithan horien erakourtzian, eta eitzi tie bere buriak hola enganatzera? Elizaren etsaier behar dira hersatu eta behatu, jakiteko zouin diren Aita Sain-tiaren gogoak?

Nour berak ezta jakin behar Aita Sain-tiak, orai den gobernu mouldia hounhartzeko aholkiaren emaitian, katoliko guzier eretcheki diala, legegoaren bethi handitzez doatzan gaintier ahal oroz buhurtzeko eginbide hersia? Eginbide horrek beste hao beita-duka, eztele botza eman behar khiristi izenaz ountsa merechitu direner baizik?

Orai joan dira; ezin deusere egin, eta lao ourthe ugu-ruki behar. Ezta ehi erraitia zer datekian khanbera ber-ria Erreljioniaren eretzian. Jinkoaren eskietan gira. Ja-danik gobernia hasirik da zounbait eretzetan eskoletarik seroren igorten saldoka, eta beldur izateko da katoli-koek beharko diela igourtzi guduka berririk. Khiristien eginbidia bethi bera da: eztie gudukari ihes egin behar eta egon besoak khurutcha. Zinezari behar dira Erreljio-niaren hounetan, eta burhagertu korajereki.

Ziberoko zounbait herritan bethi tink egoiten dira khi-ristiazko gogoetan, Barkochen, Ourdiñarben, Alzuru-kun, Gamen, Alzain Gaindañen; Etchebar orai artekan chouri izanik gorrietarat zinez unguraturik da. Beste herri haboroetan chouriak eypadira burutan joan, ari bite bethi lanian, eta eztezen azken tenoria gurunik; Jinkoak laguntuko dutu, eta agian, daigun aldian gio-thuko dutie Erreljioniaren etsaiak.



OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- ⊙ a. b. 7ⁿ, goizanko 3or. eta 17^{min}
- ⊕ l. l. 15ⁿ, gaiherdi eta 19^{min}
- ⊕ a. o. 21ⁿ, arrastirik. 3or. eta 21^{min}
- ⊕ a. l. 28ⁿ, arrastiriko 5 or.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⊙ a. b. 5ⁿ, arratseko 9or eta 55^{min}
- ⊕ l. l. 13ⁿ, goizanko 10or eta 52^{min}
- ⊕ a. o. 20ⁿ, goizanko 2or eta 26^{min}
- ⊕ a. l. 27ⁿ, eguerdi eta 38^{min}



1 Astelehen.	ZIRKONZISION.
2 Asteharte.	s. Makaire.
3 Astizken.	s ^a Jenevieva.
4 Ostegun.	s ^a Fausta.
5 Ostirale.	s ^a Amelia.
6 Neskanegun.	APHARIZIO.
7 Igante.	s ^a <i>Melania.</i>
8 Astelehen.	s. Luzien.
9 Asteharte.	s. Julien.
10 Astizken.	s. Marzien.
11 Ostegun.	s. Teodoso.
12 Ostirale.	s ^a Taziena.
13 Neskanegun.	s. Leonze.
14 Igante.	s ^a <i>Hilera.</i>
15 Astelehen.	s. Phaole, erm.
16 Asteharte.	s. Marzel.
17 Astizken.	s. Antoni.
18 Ostegun.	J. Phetir. Err. Jartia
19 Ostirale.	s. Kanut.
20 Neskanegun.	s. Fabien eta Sebast.
21 Igante.	<i>Setuajesimo.</i>
22 Astelehen.	s. Bizente.
23 Asteharte.	<i>A. B. Ezkountz</i>
24 Astizken.	s. Timote.
25 Ostegun.	J. Phaoler kon.
26 Ostirale.	s. Polikarpe.
27 Neskanegun.	s. Johane Kris.
28 Igante.	<i>Setsajesimo.</i>
29 Astelehen.	s. Franz. Sal.
30 Asteharte.	s ^a Martina.
31 Astizken.	s. Petiri Nol.

1 Ostegun.	s. Iñazio.
2 Ostirale.	KHANDERALLU
3 Neskanegun.	s. Blasi.
4 Igante.	<i>Kinkajesimo.</i>
5 Astelehen.	s ^a Agata.
6 Asteharte.	s. Aman.
7 Astizken.	HAOSTE
8 Ostegun.	s. Johane Mat.
9 Ostirale.	s ^a Apolina.
10 Neskanegun.	s ^a Eskolaztika.
11 Igante.	GOROZUM. 1 ^a .
12 Astelehen.	A. B. Lourdakoa.
13 Asteharte.	s. Jilbert.
14 Astiz. <i>IV. Th. B.</i>	s. Valenti.
15 Ostegun.	s. Fausti.
16 Ostir. <i>IV. Th. B.</i>	s ^a Julienna.
17 Nesk. <i>IV. Th. B.</i>	s. Hiji.
18 Igante.	<i>Gorozum. 2^a</i>
19 Astelehen.	s. Konrad.
20 Asteharte.	s. Eucher.
21 Astizken.	s. Pepeñ.
22 Ostegun.	J. Phetir. Ant. Jart.
23 Ostirale.	s. Petiri Dam.
24 Neskanegun.	J. MATHIAS, ap.
25 Igante.	<i>Gorozum. 3^a</i>
26 Astelehen.	s ^a Batilda.
27 Asteharte.	s. Zezair.
28 Astizken.	s. Rufi.



MARCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ⊙ a. b. 7ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 28^m.
- ⊕ l. l. 14ⁿ, arratsoko 6^{or} eta 37^m.
- ⊕ a. o. 21ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 21^m.
- ⊕ a. l. 29ⁿ, goizanko 8^{or} eta 37^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdi.



- ⊙ a. b. 6ⁿ goizanko 4^{or} eta 9^m.
- ⊕ l. l. 13ⁿ, gaiherdi eta 42^m.
- ⊕ a. o. 20ⁿ, goizanko 3^{or} eta 11^m.
- ⊕ a. l. 28ⁿ, goizanko 3^{or} eta erdit.




- 1 Ostegun. s. LEON, Baion.
- 2 Ostirale. s. Zinplize.
- 3 Neskanegun. sa Kunegonda.
- 4 **Igante.** Gorozum. 4^a.
- 5 Astelehen. s. Luperkule.
- 6 Asteharte. sa Koleta.
- 7 Astizken. s. Tomas Akin
- 8 Ostegun. s. Johane Jink.
- 9 Ostirale. sa Frantzes.
- 10 Neskanegun. 40 Martirak.
- 11 **Igante.** PASIONIA.
- 12 Astelehen. s. Greg. hand.
- 13 Asteharte. sa Ufrasia.
- 14 Astizken. sa Matilda.
- 15 Ostegun. s. Zakaria.
- 16 Ostirale. s. Ziriaka.
- 17 Neskanegun. s. Patrik.
- 18 **Igante.** ERRAMU.
- 19 Astelehen. s. JUSEF.
- 20 Asteharte. s. Zirilo,
- 21 Astizken. s. Benedit.
- 22 Ostegun. *Osteg. saintu.*
- 23 Ostirale. *Ostir. saintu.*
- 24 Neskanegun. *Nesk. saintu.*
- 25 **Igante.** BAZKO.
- 26 Astelehen. s. Braulio.
- 27 Asteharte. s. Johane Lam
- 28 Astisken. s. Justeñ.
- 29 Ostegun. s. Pastor.
- 30 Ostirale. s. Amadeo.
- 31 Neskanegun. s. Benjamin.

- 1 **Igante.** *Kazimodo.*
- 2 Astelehen. s. Frantzes P.
- 3 Asteharte. sa Irena.
- 4 Astizken. s. Isidro, Aphk.
- 5 Ostegun. s. Bizente Ferr.
- 6 Ostirale. s. Sisto.
- 7 Neskanegun. s. Herman.
- 8 **Igante.** s. *Albert.*
- 9 Astelehen. s. Akazio.
- 10 Asteharte. s. Makari.
- 11 Astizken. s. Leon handia
- 12 Ostegun. s. Jules.
- 13 Ostirale. sa Ermenejilda.
- 14 Neskanegun. s. Justeñ.
- 15 **Igante.** sa *Anastasia.*
- 16 Astelehen. sa *Grazi.*
- 17 Asteharte. s. Anizet.
- 18 Astizken. s. Elutero.
- 19 Ostegun. s. Leon IX.
- 20 Ostirale. s. Teotimo.
- 21 Neskanegun. s. Anzelmo.
- 22 **Igante.** s. Soter eta Kaio.
- 23 Astelehen. s. Jorji.
- 24 Asteharte. s. Zerazi.
- 25 Astizken. J. MARK. Eb.
- 26 Ostegun. sa Klet & Marz.
- 27 Ostirale. s. Zerazio.
- 28 Neskanegun. J. Phaole, K.
- 29 **Igante.** s. *Petiri, m.*
- 30 Astel. *Rogaz* sa Katalina.



AITA SAINTIAREN ERAKOUSPENAK KHIRISTIEN EGINBIDIAK



GIAZKO khiristi den gizouna Eliza ama saintaren menpeko haour da, eta algargoarik saintieneko eta goreneko, algargoahori Aita Sainiak Erromako aphezkupei erabilten beitu naousigoa osobatekin, Jesus Krist buruzagi ikhous-ten eztenaren pian.

Alabena barnetiko legiak manhatzen baderiku sor lekhiaren maithatzia eta haren etsaier buru egitera, beharbada biziaren khostuz, zounbat gorthura eta maitetazun gehiago eztu khiristiak erakoutsi behar Eliza ama saintari.

Bena gerthatzen da zounbait orduz, gobernu zibilak gizounari emaiten dutian maniak, eta Errelijioniak khiristiari eretchekiten deitzonak, badoatzala batak bester aitzí ; eta guduka horik jiten dira buruzagi zibilek ez deusentako edukiten beitie Elizaren Jinkozko naou-
sigoa, edo nahi belukeie bere naouigoaren pian ezari. Hortik ihardukak eta berthutiarentako bere indarraren erakousteko erazliak. Bi buruzagi balinbadira algarri buruz, batak manhatzen, bestiak ez haizu eizten. eta ezin bier jarraik : « *Ezlitake bi naousi baletan zerbutcha* », dio Ebanjelio saintiak. Bati ounhestez bestiari gaitzesten da ; zoun beharda lehen eduki ? Ezta haizu bai ezez aritzia ; ezi gaichki handia lizate Jinkoari ez obeditzia, gizounen nahiaren egiteko ; Jesus Kristek ezari legen haostia, gizonener jarraikiteko ; Elizaren zuzenen houinpetan ezartia gobernu zibilaren zuzen oustien

ezagutzeko estakurian (ezpeitu ihourk zuzenik Jinkoa-
renen aitzikorik). : « *Beharda Jinkoari obeditu gizoner
beno lehen* », Jaon done Phetirik Judioer zioan bezala.

Khristiek errespetatzen die naosigoa, noulako den
ber naosia, gaichto ala houn ; hartan bethi ikhouston
beitie khristiek Jinkoaren naosigoaren uduribat eta
leñhurubat. Haren legiak errespetatzen eta begiratzen
dutie, ez haien haostiaz gastigaturik liratekialakoz, bena
beithako eginbidebat delakoz. Bena goberniaren legiak
Jinkoaren legen aitziko badira, Eliza Saintari bidegabe
egingarri badira, Aita Saintiari oldartzez Jesus Kristen
naosigoa jaokiten badie : holako orðu orotan buhurtu
behar da, eginbidebat da buhurtzia. Ordian gizouner
obeditzia gaichki handibat lizate, bekhatu handibat,
haren ondorio gaichtoak eror beiliteizke nazionala ere ;
ezi nazioniak puniturik dira Jinkoaren aitziko egitatez.

Khristientako eginbide handia da arren, bi herrien
maithatzia, lurreko herriaren eta zeluko herriaren ; bena
zeluko herriari zor zaion maitetazunak behar du hanit-
chez gaintitu lurreko herriarena ; eta gizounen legek
eztie behin ere ezari behar Jinkoaren legen aitzinetik ;
eginbide hortarik jalkhiten dira beste eginbide guziak.

Bena zer aiherkunte eta errabiarekin, eta zounbat
gisaz oraiko egunetan gudu egiten dien gaichtoek Eliza
Saintari, eztugu erran beharrik, ageri beita sobera. Estu-
dioak eta lur hountan Jinkoak ezari indarren edireitiak,
eta haien egartiak hebenko bizitziari zerbait houngarrien
emaiteko, gizounen urgullia handitu die, eta ekharri
dutie Jinkoaren naosigoarik ez ezagutzera eta hari ukho
egitera.

Berritapenek utsuturik, gizounari emaiten die Jin-
koari idoki nahi lukien naosigoa. Beraortan eta lur
hountako izatian baizik eztie sinhesterik, ez egiarik
ezagutzen. Jesus Kristek zelutik ekharri derizkun
egiak eta harek erakoutsu eginbidiak phustatzen dutie.
Elizak, haien arao, eztu lege ezarteko photererik ez eta

ihoulako zuzenik ; mundu hountako algargoetan deuse-
rentako eduki beharra da.

Sinheste hoién barreiazalek bere erranen arao legen
ezartiagatik eta jenten hoietara zebatziaagatik, ahala oro
egiten die naousitzeko eta nazionen goberniaz jabet-
zeko. Holaz da hanitch eretzetan Errelijione katolikoa
edo zaphaturik etchekiten, edo ichiika atakatzen. Era-
kouspen gezurti galgarrienak eizten dira haizuki bar-
reiatzera, eta egia katolikoari traba suberte orotarik
ezarten.

Gaichtakeria hoién artian, batbederak lehenik behar
du bere buriaz khoutu egin, eta fedia oso beraortan
begiratzeko bide guzier jarraiki, fedia khordoka lirekien
orotarik hurrun egoitez, eta borthizki iraitzez sinheste
gaben gezur inganagarriak. Fediaren oso begiratzia
gatik, ountsa eta oraiko beharrunen ganoko edireiten
dugu batbederak bere enthelegiaren eta ahalaren arao,
errelijioneko erakouspenak ikhas ditzan seriouskiago
eta barnatikago ; hourak ahalaz argitarzunekin eta
azkarki jakin ditzan eta defenda ahal ditzan. Haregatik
ezta aski fedia oso arimetan begiratzia : behar da
bethi haboro azkarterazi, eta hortako houn da ardura
Jinkoaganat igor dadin Apostolien othoi umil eta gar-
tsu hao : « *Jaona, azkar ezazu goure fedia* ». (J. Luc,
xvii, 5.)

Bena arimen salbamentiaren entresek, berhez ki goure
denbora gaichto hoietan, etchekiten derikie orano
beste eginbiderik. Mundian orai barreiatzen dutien era-
kouspenen dilubio ithogarri hortan, Elizaren kargia da
egiaren zaintzia eta gezurrezko erakouspenen arimetarik
idokitia, eta kargu hori Elizak behardu bethi saintuki
bethe. Bena kasiak agitzen direnian, ezta choiiki Elizako
gehienen eginbidia egiazko sinhestiaren althe jakitia ;
san Tomasek dioan bezala, ordian batbederak behar du
bere fedia goratik agertu, khiristi lagunen argitzeko eta
azkartzeko, baita ere etsaien indarka gaichtoer buhur-
tzeko.

Etsaien aitzinetik gibelialat emaitia eta ichil egoitia, erantzuten dutienian fediaeren aitziko oihiak, hori da agoñurik ez-tian, edo bere sinhestiaren egiaz ezbaian den gizounbaten egitatia. Noula nahi den, hola aritzia ahalkegarri da khiristiarentako eta laidogarri Jinkoaren eretzian; hola egilia eztaiteke salba; harek fediaeren etsaiak gorthzen dutu; ezi deusek ezduzu gaichtoak hala oldarterazten noula hounen lachukeriak.

Bestalde holako khiristi nagi eta lotsorak hanitch ogendun dira, zeren usian guti aski belizate etsaien akusazionen eta errangezurtien irazitako eta ezestatze-ko, eta agoñu aphurrena aski belizate haien goitzeko eta ichilerazteko. Eta orano jakitate handirik gabe, aski du khiristiak egiazko berthutiaren indarra bere etsaien zentzorderazteko eta haien gei gaichto guzien haosteko. Ezta ere ahatzi behar khiristiak gudukako sorthu direla, eta zounbat ere beroago beita guduka, Jinkoaren lagun-goarekin segurrago dela goitzia, berak erran beiteriku: « *Konfidantcha ukhazie, nik goithu dit mundia.* » (J. Joh. xvi, 33.)

Ororen burian orhit bedi khiristia haren eginbidia dela goratik eta agerian fede katolikoaren aithortzia eta haren bere eginahalaz heda eraztia (1890 *ourlharila* 10^{ko} *guthunetik.*)

*
* *
* *

Julien, Erroman enperadore zena, *arnegata* deithurik da, khiristi erreligionian eraikirik izan ondotik, ukho egin beitzian eta paganotu. Gogoan hartu zian behar ziala khiristigoa mundian itzal erazi maltzurkeriaz eta abillitatez, orai harginbelzak ari diren bezala, beste aitzineko paganoak ezpeitziren burutu krudelitatez eta khiristien ehaitez.

Hortako khiristiak kargu orotarik kanpo ezari zutian; hountarzunak oro ebatsi zeritzen, erraiten eta erran-razten zeielarik orotaz gabeturik ehikiago zelialat helturen zirela. Haien haorrer etzian eizten eskolarik emaitera; trufaz *galileatarrak* deitzen zutian, eta alde

orotan ergeltako igaran erazten. Jesus Kristek erran beitzian Jerusalemeko tenploa eraozirik zatekiala orozbatkoz eta etziela eitziko harria harrin gañen; eta Judioak, Daniel profetak erranaren arao, bazter orotan barreiaturik eta herraturik liratekiala mundu urhentzialano : haren gezurtatu nahiz, Julien hasi zen Jerusalemeko tenploaren arreraikiten. Alde orotarik deithu zutian Judioak eta lanak abiatu. Bena fondamener lothu ziren bezain sarri langiliak, sugar handi batzu lurretik jalkhi ziren eta langiliak erre. Arra lotzen ziren bena sua berriz jalkhiten, eta gizounak tresnekin erratzen. Eitzi behar ukhen zian Julienek bere lankheia.


Bazian bere armadan gehien balio handitakobat, Balentinien deitzen, eta tink zegoena khiristi fedian. Egunbatez Julien laguntzen zialarik tenplo batetan sartzen, borthan aphez paganobatek ihiztatu zian, khiristi aphezek hour benedikatuz egiten dien bezala. Balentinienek jo zian apheza zeioalarik : « Theiutu naik, ez garbitu ». Julienek, khechaturik, zerratu zian Balentinien bazter gaztelu batetan, bena laster hantik jalkherazi, haren beharra beitzian gerla egiteko. Julien, etsaiek kolpaturik, errabian hil zen, oihuz zioalarik : « Goithu naik galileatarra ! » hola deitzen zian Jesus Krist ; eta Balentinien haitaturik izan zen haren ordari.

Hortarik ikhasi behar dugu : lehenik Errelijioniaren etsaiak bethi goithurik diratekiala ; eta gero nola egiazko khiristiek behar dien bethi, noun nahi eta nour nahiren aitzinian, goratik bere fedia aithortu eta khiristiazko eginbider jarraiki ahalkerik gabe.





JAON LAVIGERIE KARDINAL ZENA



JAON Lavigerie kardinala goure denboretako aphez-
kupu aiphatienetarik izan da. Luzegi lizate haren
bizitziaren cheheki khountatzia eta harek egin
obra ederren izentatzia ; bena erranen dugu hitz gutiz
Joon haren aphurbat ezaguterazteko behar dena. Sor-
thu zen Baionan 1825^{an} ; holatan goure herritarra zen,
eta Uskal Herria ouhouratu badu, Uskaldun girenek
ouhouratu behar dugu.

Apheztu zenetik bertan Sorbona Frantzian den eskola
gehienco errejent izentaturik izan zen, gero igorririk
Sirialat, eretze hartan gaichki erabilirik ziren katolikoen
urgaitzera. Hartarik landan, joan behartu zaion Erro-
mara, Aita Sainiaren eretzian Frantziako goberniak
kargubatetara deithurik. 1863^{an} Nancy-kō aphezkuput-
zat haitatu zien ; laou ourtheren burian, Nancy-ko eli-
zari adio erranik Aljereat joan behar ukhen zian, arche-
bisko bezala. Zer da aphezkupubaten eginbidia
baiz k eta hari gomendaturik diren arimen argitzia, eta
egiazko errelijonia ezagutzen eztiener ezaguteraztia ?
Hortara abiatu zen Araben eretzian. Aljereko goberna-
doriak, khristibatek, gaichkietsi zian, eta aphezkupia
gibel erazi eta ichil erazi nahi ukhen zian, bena aoherret-
tan. Jaon Lavigerie etzen mehatchien beldur, ez eta
eginbidiari jarraikitsetik gibelerazteko gizouna.

Seminariobat egin zian fraide misionist elibaten mou-
latzeko, eta haietarik zounbait igorri Afrikan barna
belzer Ebanjelioaren pheredikatzera. Hirour fraide las-
ter basa jente haiek eho zutien ; bena horregatik
etziren bestiak lotsatu. Aourhidegoa hori badoa bethi
handitzez eta hedatzez, belz gaichoan hounetan ari de-
larik : haorrak berheziki esklabotarzunaren petik ido-
kitzen dutu, eta errelijonian era kiten ; halaz haor hou-

rak egun batez egiaz gizoun dirateke behin behin, eta gero agian khiristi.



JAON LAVIGERIE KARDINAL ZENA


1882^{an} kardinal izentaturik izan zen. Elizan den kargu goenetarik baten ukheitiak gorthu baizik etzian Jaon Lavigerie hasi obren bethegitara, eta beste berri zounbaiten abiatzera. Ikhoustez beltzak saldoka saltzen, kabalen antzo, gogoala jin zeron ahala egin behar ziala asturu ahalkegarri horren galerazteko Hartakoz Aljerekirik abiatu zen, Frantzian gainti jo zian, hantik joan

Anglaterrala eta gero Beljikala, alde orotan belzen althe mintzo zelarik. Etziren aouherretan izan haren urhatsak eta izerdiak : algargoabat egin zen tratu maradikatu haien ahalaz ephantchatzeko. Eta batere dudarik gabe, algargoa hari esker, beltz hanitchekek bizia eta libertatia begira ahalko dutie.


Goberniak luzaz kardilala laguntu zian bere obretan. Bena, 1885^{ik} aitzina lagungoa guzia idoki zeron, sosik etzialako estakurian, eta Jaon Lavigerie, bere ossagarri aourritiareki, bidajanten makhila harturik, behar ukhen zian joan Frantziara eta han hiriz hiri eske ebili. Etzian alde orotan merechi zukian batzarria ukhen ; hoztarzun horrek amiñibat bihotza belztu bazeron, etzian haren korajia itho. Azken ourthetan eta azken thenoriala drano begiratu zian bere gaztezaroko gorthura, bere eginbide handien bethatzeko eta bere obra ororen burutan joan erazteko. Bazakian gizounak lurran gañen eroaiten dian denbora laneko denbora dela eta hortarik landan jitekoa dela bethiereko phaosiarena. Jinkoak bere ganat deithu zian igaran ourthian, azaroko 25^{an}. Haren hiltzia Elizaren eta Frantziarentako galtze handibat izan da : biak bazter gabe maite zutian ; biak lealki zerbutchatu dutu.

Erranik izan da berak Afrikan Frantziarentako armada bat balia ziala. Langile houra behin ere lanak eztu izitu, behin ere lanari eztu ihesi egin. Phaosia diala azkenekoz bakian.





LEGARRAK ET FRANTZIAKO ZORRA



DIALA laou ourthe deputatien arraberritzian, khountatu zutien zouin ziren, deputatu izentatietan, zuhurtarzunaren althe legarretan : chouriak oro hetarik, eta, gorrietan, aiphatienak. Gorri hourak ari ziren, zouin hobeki, bozka aitzinian erran gabe, arrapikatzen botz emailer : *ez legar emendiorik, ez eta sos jesaiterik*. Bena hitzaren emaitia eta etchekitia bethi danik gaiza berheziak dirade, gorrientako ja. Dugun ikhous arren igaran khanberak gorrien majoriak noula haoutse dian hitza ; bena mintza gitian aitzinetik chouriak buruzagi ziren ourthetako budjetez. Ehiago ikhousiko da zounek zuhurkienik erabili tien Frantziako sosak eta hountarzunak.

1870^{eko} ourthe hatsarrian, Frantziako zorra heltzen zen 12 miliart, 981 miliou eta 216 mila liberatara. 1876 lehen egunian zor bazian Frantziak 23 miliart, 443 miliou eta 45 mila libera. Emendio handi horrek daduzka enperadoriaren hutsen, Gambetak egin erhokerien eta Pariseko erreboluzioniaren ondorioak. Gerla ondcko bi jesaite handiek eman die Duhulatiari (*au Trésor*) 5 miliart 791 miliou eta 837 mila libera sosen, bena zor horrentako khountietan ezarririk dira, 6 miliart, 920 miliou eta 32 mila libera, jesaite moulede haitatia zelakoz, Thiers Errepublikako gehienaren faltaz, bankierek eta arakharderrek gora erazi beitzutien.

Sos horreki khanbera chouriak arraberritu zutian gerla egiteko tresnak, eta gerlak erazi dohakaitzak urgaitzi. Eta intres handiak zorrarentako phakatu behar bazutian, hañ ountsa haitatu zutian legar berriak, hain ountza erabili Frantziako egitekoak, noun ourthe bakhoitzeke mouzkinetarik ourthekal zor phartebat phakatzen beitzian. Chouriak buruzagi izan diren azken

ourthian 1876^{an}, zorra tchipitu zen ehun eta berrogeita hamar miliouz; baliatu zutien bidetako, eskola etchentako eta holako lanetan, 146 miliou, eta orano legarretarik baratu zen ehun miliou soberakin. Hartarik eman balie gozotik, ordunko zorra oraikoz tchipiturik zatekian bi miliart eta erdiz, eta legarren arhintzia ehi laiteke.

Bena gorriek, buruzagitzuz geroz, beste gisaz ari izan dira. Lehen bi ourthetan izan da mouzkin khochia; egia da ourthe haietako budjetak chouriek adelaturik zirela. 1874^{an} eta hantik aitzina, ez batere haboro mouzkinik: ourthe guziez sosa eskaz egitekoen burutan joan erazteko; aourthen ere (1893) badate eskaz handibat, berrehun miliou gutienik eta zounbaitek dioienaz laou ehun miliou hullan. Zilo hoiien thapatzeko jesan behartu zaio gobernari, eta zorra helzen zen 1889^{eko} azken egunian, 30 miliart eta 32 milioutara, eta, igaraneko azkenian, 30 miliart eta 697 milioutara, emendio horrek beitaduka azken khanbera gorriak egin zorra. Eta zor hortan eztugu khountatzen viajeraren kapitala, hora ere zor dena. Arren gorriak buruzagitu, eta Frantziako zorra, bakia gunialarik, 6 *miliartez eta 611 miliouz* goratu da.

Ezpalira orano legarrak handitu! Enperadore denborako azken ourthian, despendioen budjeta helzen zen miliart eta 740 milioutara; 1876^{an} bi miliart eta 527 milioutara, 787 miliouz emendaturik. Emendio hori erazi zian zorraren goratziak: behar ukhen zutien bost miliart phakhatu Prusiari, beste gerlako ondorioer buru egin; halaz zor haboro bazen hamar miliart eta erdi, eta haren intresa phakatu behar. 1883^{an} bestelakorik zen: *bazian zazpi ourthe gorriak buruzagi zirela eta budjeta helzen zen hirour miliart eta 587 miliouetara*; erran nahi beita zazpi ourthez miliart eta 60 miliouz goratu diela budjeta; azkenak bazian 113 miliou haboro, eta ooren burian eskaz zen

khountietan, chuchen heltzeko, ehun eta 50 miliou.


Erran dugu ezguniala zorrarekin khountatu viajera, erran nahi beita kargulanten zahar bihiaren kapitala, hora ere handitez doana. Kargulant erretretatier beharko zere phakatu daigun ourthian 222 miliou eta 157 ehun mila libera, horrek emaiten beitu bi miliart eta 220 milioutako kapitalbat. Ezta zorra oro hor : departamentiek eta herriek badie bere alde zor eijerra. Helturik zen 1890^{eko} urhentzian hirour miliart eta 749 miliou etara.

Halaz Frantziako zorra oro boti, 36 millartez goiti badoa. Behin ere herri batek eztu hañ handirik ukhen. Boulanger, senadore errepublikatiarrak zioan, orano berri : « Prusiak, Otrichak eta Italiak badie algarreki 30 miliarten zorra, hirour erresouma hoietan badelarik jente saldo handia, 116 miliou egoile; goure zorra aldiz 36 miliartetakoa da, 38 miliou egoileren. Erran herrien jinphiden budjetak juntatzez heltzen dira laou miliart eta erditara; gouria aldiz 3 miliart eta 298 milioutara. » (Daigun outhekoak badu 141 miliou haboro.)


Frantzia zounbat nahi aberats izanik ere, zorraren eta legarren thaigabe gorentze horrek, geroan leher eginaziko dereiku. Errepublikatiar gorbeltzbaten erranaren araou, « ourthe bakhointzian bizi girade mundia ondokoan itzaltzekoa baliz bezala. Legegei, bere ondotik gastu handirik daduzkanbat, eskeintzen dieia khanberan, aski da houn harerazteko, erraitia gastu hourak zounbait ourtheren buruko ezpere diratekiala. Zer gerthatzen da ordian? Denbora badoa, ourthe hourak helzen; gero bada budjetbat ezinago hanturik, eta sosik ez joanphide haietan burutan joaiteko. Eztie hori lañoki aithortu nahi herriari. Ordian egiten tie *bons du Trésor* direnak, erran nahi beita zorretan barnago sartzen direla, ourthekal phakatu behar zorra (dette flottante) orozbatkotzen, eta bestebat ordari jiten. Eztakit. Louis XV gerrenak zioana, horik oro gu bezanbat iraitekoak direnez, bena ountsa dakidana da, goiz edo berant, bankarot osoala edo phartezkoala buruz girela. » Gorbeltz horren errana beno deus

egiagorik. Haren khidiak eztiteike mintza erran gabe hola direla egitekoak, Enperadoriaren hutsak eta gerla direlako. Bai bena ahazten zaie, gerlak erazi emendioa eztela heltzen 650 milioutara baizik. Zertako da miliart eta 350 milioutako orai den gorentzia ?

Hortan baratzen gira ; balizate orano gaiza ount-satto erraiteko ! Gobernia badoa bankarrotari buruz ezin ukhatiada : hots, laborariak, leher zitaie lanez, beharda sos gobiernientako, sos, eta orano sos haboro. Deusere eztukezianian zinez emanen duzie : Biba gobernu gorria !



FABRIKETAKO LEGIA



ETZERON aski hargin belzen eskietan den goure gobierniari, orai artekan Errelijioniari egin gairchikia. Ezi lege berribat egin zian diala bi ourthe hullan Elizetako hountarzunen erabiltiaren gañen, eta, igaran martchoko 27^{an}, eman dutu lege haren araoko chediak. Lege hori, gasetek guti aiphatu badie, Errelijioniaren galzetan egin dutienetan tzarrenetarik bat da

Orok dakiguna da Eliza bekhoitzak badutiala hountarzunak, guti edo hanitch, bataskaspaldi danik ordeñuz ukhenik ; bestiak aldiz, ourthe oroz biltzen direnak, jargia sarietarik, esketarik etc. Haietarik phakatu behar Elizako kargulantak, argiak, eta zoun elizatatan, hiri handietakoetan, sei zortzi, eta hamar bikaritara drano. Hountarzun hoi erabilteko badirade orotan kountsellu berhezi batzu, bilzen direnak artetarik, ikhousteko zoun diren Elizen beharruniak eta khountien egiteko.

Orai artinoko legiak bazutian lauetan hogeita laurourthe, eta Napoleon handiak ezarririk zen. Hari jarraituz fabrikak aski ountsa zozan. Kountselluko gehiena, erretorareki, merareki, eta beste laguneki alkhar laguntuz, bakian bizi ziren. Legia, bere okher-rune gatik ountsa harturik zen, eta elizako hountarzunak, zuzen den bezala, elizako eta herriko gizounen eskietan baratzen ziren. Herrietan, herrietako etcheko jaon zuhurrenak eta ouhouragarienak ziren, erretor eta mereki batian fabriketan pharteliant, beharrunen ikhousle, eta, hountarzun zerbait zenian, haren erabilzale. Eta jaon horien ororen buruzagi, aphezcupia, ezinago zuzen zen bezala.

Ourthe oroz igorten zutian fabrikakogehienak aphezcupiari khountiak, egin oundouan ministroak berak eman moulebaten arao; aphezcupiak cheheroki ikhertzen zutian, eta gero bai erraiten, edo utzulzen igorlari zerbait chuchentzeko bazen. Ber ordian khountu hourak igorrik ziren herriko kountsellari, haren baiaren ukheiteko. Etzatekian, eta etzen ere, holaz erraiteko handirik, eta gobernuko kargulantek etzien khountietan deus ikhoustekorik, salbu hatik prefetak kountselliak bai erraiten etzianian. Ordian ere prefetak etzian egiteko handirik : ukhen bezain sarri, khountier sogin, eta igorten zutian aphezcupiari.

Fabriketako gizounen kargiak dohain dira eta ere lana oro egiten dianarena, duhulzañarena. 1880^a ministro gorri ohibatek zioan bezala, sobera zatekian duhulzañari zerbait bermari galthatzia legarkarien antzo, edo haren hountarzunen ipotekatzia, bere kargiaren eginbidiak bethatzen dutialakoz, bere nahiz eta dohañik. Halarik ere etzen ehi, herri hanitchetan, khaositzia lanaren egiteko artia zianbat, eta khountu egiten eta izkiribatzen aski trebe zenbat. Oraiko legiareki batere eztitake, ihourk ezpeituke nahi.

Lege berriaren arao, fabrikako duhulzaña edo khountu egilia, okher guzien berme dateke, eta haren houn-

tarzunak ipotekatiak dirate, kargia aitzina bethe nahi balinbadu. Bena haboroak eztira hartarik ariko; zer egin ordian? Ahalak oro egin herriko gizounen eta berheziki fabrikako buruzagien, hurruntzeko fabrikatik, oro gañetik duhulzañaren lotsa erazteko, ipoteka hori otsez: ahalak oro egin ihour eztadin izan nahi fabrikako hountarzunez berme, eta goberniak bere jokia eginen du.

Fabrikak baduke duhulzaintako nour nahien haitatzeko zuzena. Bena kargia houn hartuko dianak, bermari emaitte houra delakoz, edo ipotekaren beldurrez, ezte lehenekoak bezala lana dohañik eginen; beharko da phakatu Elizaren soserarik, eta, phakaturik ere, eztate ehi zounbait herritan halako gizounaren hatzamaitia. Eta aphezakupiak ezpadutu ourthe oro, urrieta lehenaren aitzinetik, emaiten prefetari parropia bakhoitzak haitatu duhulzañen izenak, ordian prefetak kargatuko tu legarkariak fabriketako lanaz eta duhulzaingoaz. Legarkarier, (erran nahi beita goberniari,) eman beharko zeritze Elizetako hountarzunen titriak, sosak oro; haiek dutie hartuko jargien sariak, trounkoak zabaltuko, etc. eta hori, higanaot edo judio izanik ere.

Legia ezta aphezez, erretorrez mintzo, batere ezpaliz beno haboro. Bena aiphatu gabe, idokiten deitze, Elizako khountien ikhousteko dutien zuzenak. Eztukie, legarkarien eskietara erorten bada duhulzaingoa, eztukie itzebat sar edo idoki ahalko, ez zeta ere argibat phit edo hil ahalko goberniak nahi ezpadu. Legarkariak baduke lanhegingentako laour libera fabrikak ukhen ehun libera bakhoitzaren, parropia tchipietan.

Eta hanitchetan elizetako mouzkinak eztira ehun liberataraz helzen.


Zerentako lege berri hori? Erran ukhen die parropietako khountiak ikherturik izan behar direla, herriek behar dutielakoz fabrikak laguntu sos eskazian badira. Arrazou hori houn zatekian lehenago; bena

eztu deusere balio, zeren eta 1884^{eko} legiiaz geroz, herriak ezpeitira bortchatu sos eskazian diren fabriker heltzera, eta ezpeitutie bere gain hartu behar elize-tako holzer edo hegatzari agitzen diren damu handiak baizik; eta hori, segurtaturik direlarik fabriker etzerela baratzen mouzkin soberakinik batere.


Prefeten aholkuzkoek dutie chedaturen khountiak eta joanphide usatiak : althareko ogia, ardou, inchen-tia, olio, ountzi sakratiak. Haiiek die erranen fabrikak sobera igorri diane zutzien alhatzako, ogen ukhen diane z, ornamentu chouri edo berde, khountietan ezarririk etzenbaten erostez. Errelijioniarren etsaiak badira, ehi da ikhoustia ahalaz fabrikak therri-tatuko dutiela. Etzian gobernariak besterik gogoan, lege horren ezartian, baizik eta Elizetako hountar-zunen bere eskietara biltzia. Holaz ouste du Erreli-jionia, beste lege gaichtoen laguntzareki, bertan itzaliren dela.

Oraiko lege berri horri buhurtu behar da. Legiak berak hao baizik ezaduka, ourthe hountarik aitzina fabriketako khountiek egin beharko direla beste khountu publikoen cheden araoera. Deusere haboro. Batere etzian gobernuo aholkiak, legiaren egarteko mouldiaren emaitian, erraiteko zuzenik legarkariak diratekiela fabriketako duhulzañ, fabrikek berek bat ezpadie haitatzen. Arren hobena dateke *appel* egitia, prefetak legarkaria nahi dukianian duhulzaintako izentatu, gobernuo Aholkiaren aitziniala. Aholku hortan batak ari dira legen chedatzen, eta bestiak juje dira legetan okher zerbait agitzen balinbada. Beharko die erran zer legeren indarraz bortchatzen ahaltien fabrikak legarkarien duhulzaintako ounhes-tera. Orotan gisa horrez buhurtzen balinbadira fabrikak, eztokegu arte luzeren lege berria.





APHEZAK SOLDADO



EZGIRA orai artekan mintzatu lege horrez, aphezgoaren eta Errelijioniaren galzetan egin ziena diala lao ourthe. Zer ondorio ekharri behar zutian, etzen ageri hanitchentako, eta berheziki errelijioniaren etsai izan gabe, haren ertzian hotzto direnentako. Bestekala chourialagorri, sobera ountsa bazakien zertara zabilan legia. Orai orok ikhouston ehi dena da geroan, ezpada arte hontan khanbionik, eztatiala batere kasik aphezik.

Hatsarrian, lehen ourthian, kasernan ziren aphezgeiak tink egon dira bere fedian, eta Jinkoaren deiari jarraiki. Zerbutchu denbora egin, eta gutiz bestiak utzuli ziren seminarioetarat. Eta hanitchek ouste ukhen Errelijioniaren etsaien indarkak aoherretan zirela, eta asko gisaz hori arrapikatu. Zalhekitto mintzatu ziren. Lege gaistoek erazten dutie astura gaichtoak. Soldadogoako legiaren pian jartez, bere zuzenen bidegabeko bortchatze horri ohatzez, aphezgeia legiak daduzkan ondorio gaichtoer gutiago oharitzen da, eta etzere hain gothorki buhurtzen. Orai hanitch d ra seminarioetarat utzultzen eztirenak, haboro badaagian, behargabetarik utzulidenik.

Holakatzen badira soldadotegietan ourthebat berbera igarailiak, zounbatez ezta handiago fraidegeiek egari behar esprabia, hirour ourthe zerbutchu egin behar dienaz geroz? Haietan, soldado sartzian zutien gogo hounetan tink egoiliak ezinago bekhan dira.

Bai, ezin ukhatia da, legia ezinago galgarri dela aphezgoarentako eta Errelijioniarentako; ezariz geroz, aphezkuperri (diocèses) aphezgei haboroenik emaiten zutienak, eskazten hasirik dira.

Zounbat berekatuts elhe ezteikie erasi, eta erasten orano, legiaren althe direnek? Aphezak soldado?

zertako ez ? bestiak ere hala dira ; aphezok ez othe dira gizoun bestiak bezala ? ez othe dieia haiek ere, aiterria maithatu behar, eta laguntu behar ordietan ? Holako eta horik uduri zozokerien errailer gogoia bethe dere araoz aphez geien soldado joaitiak. Hor dira orai lege tzarraren ondorioak. Ourthe bakhoitz badoa soldadotegietarat bi mila eta sei ehun soldadoen ungunia. Erran dugun bezala, legia ezari lehen ourthian haboroak utzuli badira seminarioetarát, geroztik bekhantzez badoatza. Noulaz etzatekian hala ?

Ehi da soldadogoan, dianarentako, aphezteko tchestiaren galtzia. Ezi ezta soldadoen artian entzuten ez ikhouston ardurenik aphezgeiek gogoan hartu dutienen bazter eraztekorik baizik ; eztugu hori errangei Frantziako soldadoak gaichki erabili nahiz. Bena orok dakiena da zounbat nahi bihoztói izana gatik, errelijione guti diela, eta algarganat biltzen direnian, eztela haien artian hitz eta egite likhitz baiz k. Soldado izan girenek orok hori badakigu.

Hanitchkotan erran dien bezala, gasetetan eta deputatien khanberan ere, soldado frantzesak eztiro khurutchiaren zeñharia, ezeta den gutieneko othoitzik egin lagunen jakiniala, noun eztien trufatzen eta eskarniatzen ere zouñ aldiz. Goure Frantzian soldado haboroek ezte mezarik entzuten igantian ; orai artekan egia da aintzindari hanitch oro estakuru zirela, soldadoen kasernati kanpo ez eizteko igante goizez. Lao edo bost ourthe hountan, barneko zerbutchurik eztienek, kanpo joaitera haizu dira goizik ; halera meza entzuliak bekhan. Beste herrietan, Españan, Italian, eta higanaoten herrietan ere, soldadoak jarraikerazten dutie zouin bere Errelijioneko eginbider. Bena Frantziakoa usian, ezpadu Elizetan zankhorik sartzen, badoa igante gaiez berheziki, lekhu tzar elibatetara, bere arimaren eta osagarriaren galzetan. Galtha soldado izan direner eztenez hori egia !

Noula irañ errelijioneko urhatsetan, hainbeste trufaren

artian, noula egon garbi halako theiukerien artian? Aphezgeiak bestiak bezala gæzte dira, eta sorkhuraz gaichkialat aher. Ehi da ikoustia hanitchek ezlukiela aiphatu traba hoier ihardukitzeko indarrik, orhituz berheziki, gaichtoek, aphezgei batzu buruz direlakoan, haien nahaserazteko ahalak oro eginen dutiela.

Erran ukhen die ere etzatiala hortarik, Errelijioniarrentako gaitz handirik, zounbaitek, galtzen badie aphezteko tchestia, tink egonen direnak hobiago beiti-rateke.

Zer erran ziniroie artzañ batez, bere arthaldia bazka tchar batetara eroan lirokianaz, haoche gogoan iganik : « Ardi mendriak lehertuko zitzaiztat, bena zallagoak azkartuko dira, eta ororen burian irabazitan naiteke. » Ziek ihardetsia entzuten dugu : « Egiazko zozoa! Bai tcharrak lehertuko zaizk, bena hounak ere tchartuko, eta hola aritzez, arthaldiaren orde eztukek sarri hora berbera baizik. »

Haorak eta jente gaztiak bildots eta ardiak uduri dirade : haien arimen hazkurria noulako ere beitate, edo bide chuchenian egonen dira, edo galduko ; lagun tzarren artian bizi badira, hourak uduri laster bilhakatuko, hain beita galgarri etsenplu gaichtoa. — Hour khozatien edatiak, belhar gaichtoen jatiak ez dirokeie azkarrener ere kalterik baizik egin.

Aita amek badakie hanitch ountsa, eta horregatik begia erne etchekiten haorretan. Nourk erran liro haietarik bat edo beste galdurik ere eztela gaitza handi? Nourk erran liro, ountsatik ari badira, hobiago bilhakatuko direla gaichtoen artian ebiliz, gaichkia ikhoustez eta entzutez?

Bada adin bat, hartan nour bera gaichkitik ezpeitake begira ihesiari emanaz baizik ; eta bere beithan osoki lerratzen eztirener, gaichkiaren luzaz ikhoustiak eizten ohi dutu hazi galgarri batzu. Horra zertako Elizak bere haor berheziki maite dutianak, luzaz etchekiten tian etsenplu eta solaz galgarrietarik

hurrun. Horra zertako bai Aita Sainiak bai Aphez-
kupiek aphezgeien soldadogoako legia gaitzesten dien.

Legiaren ondoramenak orai ageri dira, ezin ukhataiak :
soldado ebili aphezgeietan geroago eta gutiago utzultzen
da seminarioetara, eta beldur izateko da, utzultzen dire-
netan haberoek eztezen bere beithan zerbait khozu begira,
eta eztadin izan sarri, orai beno aphez gaichto gehiago.
Eta ezta deus galgarriagorik Erreljionientako aphez
gaichtoa beno.

Arren alde batetik aphez gutiago, eta aphezgoaren
uthurriaren geroan chahu agortzia, eta bestetik aphezten
direnen bere eginbidetan khordokatzia : hori dela zer
deragokan legiak. Eztakigu zer igaran behar dien orai
bere beithan khiristi, holako lege erazle gorrier botz
emailek.


Legiaren althe ziren eta diren ministro eta deputatu
hanitchek hitzaman zien ahalak oro eginen zutiela legia-
ren eztiitzeko aphezgeien eretzian. Eta ezarririk da legian
(art. 49, § 7) hogeita zortzi egunetako dispensa ukhen
ahalko dutiela berheziki aiphatzen dutien kargulant bat-
zuk, eta kargulant hoiien artian ezari tie parropietako
zerbutchiaz kargaturik diren aphezak, *lycées*-etako, os-
pitaletako eta presontegietako aumonierak. Halarik ere
deithu dutie azken hogeitazortzi egunetan erretor elibat.
Ehi da ikhoustia zer agituko den gerochago, aphez gu-
tiago datekianian parropietan : erretorra, bere aizoko
zounbaiteki ari da hogeita zortzi egunen egiten : hiltzeko
phuntian denbatek igorten du haren ondotik benaaoher-
retan. Aizokoa ere hogeita zortzi egunetan ; eta eria hilt-
zen da arte hartan aphezik ikhousi gabe.

Noulaz horik oro erranik eta arrerranik zirelarik zibe-
rotarre, azken bozkan eman die hainbeste botz legiaren
althe zenari ?





SANTA GRAZIAREN ISTORIA



SANTA Grazia (edo Engrazia) sorthu zen Portugalen, eta hanko gobernadore naouziaren alhaba zen. Egiazko erreligionian eraikirik, goizik bere bihotza eman zian Jesus Krist gizounen Salbazaliari. Haren gogoaren kontra aitak hitzeman zian espousatzat Narbonako printze bati. Etzeron Engrazia aitari buhurtu igaran behar beitzian Espanan gainti, eta beitzak'an han khiristiak persegitzen eta krudelki ehaiten zutiela Erromako enperadorek; eta gogoak erraiten, edo Jinkoak asmaerazten zeion, bazukiala harek ere Jesusentako bere odolaren ichourteko dohañ houna.


Abiatu zen arren hamazortzi laguneki, eta zounbait egunen buruko heltu Saragozera. Hiri hartan Daziano, enperadoriaren ordariak khiristiak eskarniatzen zutian eta hil erazten, thormentu garratzenak igourtzi erazi ondoan. Juje basa hora bere tribunalian ari zelarik Jesus Kristen zerbutcharien kondenatzen, joaiten zaio Engrazia eta bihotztoiki mehatchatzen du jente ogengabe eta jinkotiarren aitziz egiten dutian itchouskeriez eta bidegabez. Daziano, neskabila haren ausartiaz gaizturik, manhatzen tu bere soldadoak, esteka dezen Engrazia bere lagunekin, eta azota dezen odola jaozeraz artino, eta gero, hiria gainti, zamari baten buztanari estekaturik, herresta.

Biharamenian berriz, Dazianok deitzen du bere tribunaliala eta aholkatzen eitziz ditzan khiristien sinhesiatiak nahi bada adelatu deitzen thormentu izigarrietarik begiratu. Engraziak ihardesten derio eztiala haren koleraren beldurrik, bena berak gogo eman dezan Jinko egiazkoaren kolerari, haren gaña sarri eroriko beita; eztianez ikhousi Bizento diakria thormentatu dianian zounbat handi den Jinko haren berthutia eta indarra?

Engraziaren erran hoiak gaizturik, Dazianok manhatzen du birjina etzan dezen bi haberen artian, eta haren aragiak burduñ aztaparrez eta trukesaz zathika eta cheheka ditzen. Manu horri hain borthizki jarraikiten dira bourreuak, noun, thitiak mouztu, eta gibelerraiak agertzen beiteritzoie, eta ere gibel bouzibat trukesez idokiten.

Thormentu hoiak ikhoustez oihuz hasten zeie Dazianori Engraziaren hamazortzi lagunak : « Noulaz hañ itchouski eta basaki erabilten ahal duk neskati la flaku hori? Gu gizounak beikira, aigu; gutan, gutan ase ezak hire odol egarria : ezi gu ere khiristi gutuk hori bezala. Dazianok ordian berian manu eman, hiritik kanpo eroanik, orori buriak ebaki litzeien. Horren jakitiareki hanitch boztu zen Engrazia, ikhousten beitzian bere lagunak aitzina joaiten zeitza zelialat. Berari berthutiaren indarrak begiraten zeion orano bizia khorpitz lahardekatu eta alden alde zilatu batetan; igorri zien presoutegiala eta han bere arima ederra Jesusi eman zian azken hatsareki.


Errana da ouhouñ batek Santa Graziaren besoa mouztu ziala, erhietan zutian erhaztunen ebastiagatik, eta, jinik zelarik Ziberouko mugetara, han besoa ezabatu zereiola, Urdatche zen basaherri batetan. Hango artzainbategen behibat galdu zian eta haren bilha zabilarik, ikhousten du belhainka haritchbati buruz, adar thinetan bi tortcha phizturik, eta zerbait argi haritchan gañen. Hullantzen da, eta ikhousten besobat, erhietan erhaztun eder elibatekin. Behia han eitzirik laster egiten du jaon erretoraren ganat eta erraiten deio zer gerthatzen den. Erretora khurutchiarekin eta eliza kapekin lehiatzen da, artzañak lagunturik, erran eretziala; berak eta hara bildu populiak, ikhousten die artzañaren erranaren egia. Besoa eroaiten die elizalat; bena biharanmenian bezoa galtzen da elizatik eta utzultzen edirenik izan zen haritch gañialat. Horren ikhoustiak ezagutzera emaiten deie han behar zela egin elizabat besoaren har-



tan begiratzeko eta ouhouratzeko. Jakin izan zen Santa Grazia, Saragozen martira hilaren bezoa zela. Arte handiren burian, hameka gerren mentian, Sancho Ramiro, Aragoniako eta Nabarrako erregiak eretze gaitz hartan era kieraizian Santa Graziaren ouhouretan eliza ederbat, orai ikhouston eta amiratzan dena. Ezari zutian haren zerbutchuko eta Españalat joailer atherbiaren emaiteko, Sent Agostien aourhidegoako fraide elibat. Eta eman zeitzen elizari eta fraide haier lur eremu eta mouzkin handiak. Ordartino herriak Urdatche zian izena; geroztik deithu die ere Santa Grazi, eta izen haou bera baratu zaio azken mente hoietan.


Santa Graziaren ouhouratzera eta othoitzera jiten ziren senthoraliak Españatik, bai Frantziatik, saldo handitan, haren eliza ederrialat. Diala laou ehun ourthe, erregina Janak igorri tropa higanotek erre zutien Santa Graziaren erlikiak, eta elizako althare, pheridikagia eta edergalliak oro, bai eta ere eliza khantuko ospitalia eta fraiden egongia. Nahi zukien ere eliza erra erazi, bena hortara etziren burutu ahalizan, oro harriz delakoz. Hantik berrogei ourtheren burian, Jaon Maitia, Lestarreko seme zen Oloroeko aphezakupiak, igorri zutian hirour erretor, Santa Graziako kalonje, Saragozera, hanko archebiskoari Saintaren erlikia berri baten galthoz. Haiek zien ekharri orai ouhouratzen den Santa Graziaren erhi bouchia. Erreboluzione handian elizako zeñiak eta ountzi sakratiak oro Maoleat eroan zutien, han saltzeko. Ordunko erretorak *Johane d'Esquer* zenak, gorde zian Santa Graziaren erhi bouchia, eta bere oundoko erretorari hiltzekotan zenian, eman elizan ezarteko.





LABORANTCHAZ

I. — Uztak 1893^{an}.



OURTHE idorra izan da igaraiten ari den ourthe hao, aitzinekoa bousti ezpazen izan ere. Idortiak, berantchago hasirik, irain du ere haboro, zounbait eretzetan phuru. Bada herri ezpeitie euririk ukhen igaran buruila artino. Etzen holakorik izan ehun ourthe hountan. Diala mentebat chuchen chuchena, idortiak, baranthailan hasirik irain zian buruila 22^{iala} drano. — Mundu orotan halaber izan da kasik kasik.

Ogia goihenturik beitzen idorte hastian, ezta sobera esprabirik izan salbu lur arhinetan eta Frantzia erdiko departamentietan. Bihia ountsa hazi da, zankhoak llabur eta chehe egon badira. Bazen eijerki eta dena eder.

Olho, garagar eta sekaliaz halaber erran daiteke : haiek ere eman die bihi, usatiatiaren petik hatik, bena ountsa hazirik ; lastoa aldiz, ogiarenaren antzo, khuto eta desbardin. Arthoetan ere, ountsa joan diren lekhietan, zankhoak llabur baratu, bena saparen indarra burietara joan da eta izan uzta eijerra. Bena erran behar da hanitch herritan, berantegi ereñik izan delakoz, eziala eman uzta herenik ere.

Janharitako eta sukre egiteko betarabak nekez sorthu dirade, eta behar ukhen tie arra ereñ hanitchtto eretzetan ; uztailako euri bekhanegiek houn egin dere, bena geroztik ezelakoz izan, egon dira chehe edo desbardin. Eta etzaitze azken euriak hanitch baliatuko sukre egiteko betaraber, uzta goizago hasi behar ukhen die-lakoz. Orano lurrian direnak lodituche dira, bena zien indarraren galzetan, ezpeita egunaldi eder eta berorik izan.

Igaran ourthia ezinago tchar izan zen bazkentako, oraikoa tcharrago, ahal bada. Eztie belharriekin apha-

unetan baizik, artekotto ; beste eretze orotan ezta izan uzta laorden baten heña baizik, goretetik. Erraiten dut goretetik, ezpeita batere izan soberatan : ezi ekhiaren beroak itchaso bazterreko eta Frantzia erdiko departamentietan sorhoak erre chispiltu dutu eta hain zinez noun ezpeitzen lekhun gañen kabalen alhaerazteko phastarik. Bena ipharraltetako herrietan hilabetez goizago behar ukhen beitie belharra ebaki, izan da aski eijerki arradall. Luserna trefla, eta beste ereitziak gaichki erabilirik ziren, belharra bezala, bena ez hain borthizki, hullanik ere. Lehen ebakaldiak eman badu uzta erdibaten ungunia, odokoak euri izan den eretzetan, aski eijerki joan dira eta lao, bostalditara drano ebaki dutie sorhoak.

Bazka eskazari buru egiteko ahalaz ernatu dira pe hoietako laborariak. Afermier gothorrenek egin dutie ereitze muta franko, ountsa edo gaichki joan direnak, haroaren araoka. Laborari tchipi haboroek erein die, edo ñabo edo artho bazkagei berde ebakitekotik, edo ogibelz, ogia eraiki alhorretan. Ereitze hoiek eman uztek eztie menturaz gaitza sendotuko, bederen eztukie laborariak miseria belza.

L'Echo agricole den laborantchako gasetak ezagut erazi du Frantzian eraiki dutien uztak zen heñetara heltu diren. 1893^{an} eraiki die 97 miliou eta 5 ehun mila ektolitra edo zaku ogi. Eta erraiten du ber denboran haren igaran ourtheko estimatzia prefetena beno ahalago zela bost miliouz. Ezin ukhatia da prefetek huts egin ziela edo uzten edo Frantziako ogi beharrunen estimatzian. Erran zien beharruner buru egiteko beharko zela hogeï miliou zaku haboro. Aldiz ezta sarthe Frantzian atzerrietarik zortzi miliou eta 9 ehun mila zaku baizik eta baratzen da orano aitzineko bi ourthetarik hamabi miliou zaku. Hortarik ageri da zerentako goure ogiak gaichki saltzen eta hain merkaturik diren, bi uzta eskazetarik landan. Diala hamar ourthe, halaber agitu bazen, ogiak balia zukien 28 edo 30 libera, eta

laborariak etziren orai bezain nekez bizi. Hortarik ageri da ere azken khanberak ogen ukhen diala ez ezartia zounbait deputatuk nahi zien bezala, hirour liberatako thallabat. Zaku ogiak phezatu du hamar ourthetan bata beste 76 kilo eta erdi; aorthenkoaren phezia ezta hortara etchiñi heltzen.

Sekale izanda, bena arteko uztabaten petik; halaber garagarra. Eskaza handi da olhoetan; ezkie eraiki 75 miliou zaku baizik, 12 miliou arteko ourthebatetan beno gutiago, eta olhoaren prezioa ogiarena beno gorago da Baten eta besten lastoa, gorago erran dugun bezala, khuto eta desbardin zen.

Mundu orotako ogi uzta igaran ourthekoa beno tchipiago da 36 miliou zakuz. Halarik ere baratuko da zerbait soberakin beharruniak bethe ondoan.

Belharra Ziberoan izan da beste orotakoa uduri; usatiaren laordena baizik ezkie eman sorhoek eta dena utsal, eskietan min egiten; sorho mehe hanitch, saiheskietan berheziki, ebaki gabe baratu dira belharrik batere ez izanez. Uztailako eurietarik landan abiatu zen belhar chugun phouskabat, bena eztu luzaz irañ eta laster agorrilako beroek eihar erazi die.

Izan da aski eijerki aradall berantian, berheziki bortu ondoetan. Horegatik bada bazka ments handia. Ezkie egin negu erdiaren beno haboro eta kabalek thiarik batere ez. Eskaz hori burutzeko laborariak erēñ die berazanetan ogi, garagar, faloucha, trefla, ñabo, eta artho berde jan erazteko. Heñ batetan laguntuko dutie ereitze hoiēn ekhoitzek. Bena beldur izateko da negu hountan, haroa garratz bada, kabalen gosez hiltzerik izan dadin, ezin saldian.

Bazkarik ez izanez ihoun ere, kabaliak ezinago nekez saltzen dira, eta direnak, igaran 40 ourthe hountan izan diren beno hanitchez merkiago.

Kabalen ezin saltzeko dohakabiaz bestalde, laborariak ikhouston du ilhia merkatzen ourthetik ourthiala. Eztu haboro egiten legarren phakatzeko doia diharu.

Laboranchako ministroak eman erazi du Khanberari bost miliou laborarier idortiak erazi dohakaben urgaizteko. Laborari bakhoitzak baduke bost miliou hoietarik hogeibat sos edo nounbait han, edo egiaz mintzatzerazera, hogei sos hoiien esparantchan bizi behariko da etjakin nouiz artekan. Kountsellu jeneraler lehenik behar ukhen derie prefetek abis galthegin, eta gero, berantu gabe, phartituko die erran den sosa. Arte hartan laborariek badukie kabalen galtzako denbora. Eztu laborariak laguntza handirik uguruki behar gobernianik : gobernian ari da noula nahika sos igorten, eta eztu laborarier emaitekorik.

Hori beno hobe datekiana hanitchentako, laborariek orai danik ahal die jesaiten *Caisse des Dépôts et Consignations* denari, bost ehun liberatara drano, bazkagei erosteko, eta hortako berbera. Halaz begiratu-tuko tie aisago dutien kabaliak. Kesa harek eztu galthatzen berrogeita bost sos baizk intres ehun libera bakhoitzaren, eta aski da galthoaren egitian meraren santifikat baten igortia galthatiaren ukheiteko.

II. — Laborarier aholku.

Bazaio laborariari denboraren paseiun eta aouher ez eroaitia. Laborantchan ari direner da ardurenik jiten denboraren galtzeko parada : Merkhatiak, bakhiak (edo feidak), phikoalako eta hazteko kabale sal erospentak, phastoal eta maskarada, eta bestelako jei subertiak oro, denbora hanitchen jaliak beitira, ezpada horri behatzen. Etchenko nausia ments denian, paseiun bada, michkandiek eta langilek lan aphur eginen die, edo gaichki. Hola dira diharia eta denbora galzen, etchiak behera joaiten eta bankarrotak helzen.

Erospenetan eta salzeperetan begira tratiene egitiari ostatutik kanpo, barniaz eta kopetaz ezpada berheziki azkar. Edanak buria berotuz geroz, tratiak ahulkiago egiten ohi dira, eta noula tratlantek hori beitakie,

ostatian dutie bethi tratiak urhentu nahi. Laborariari da tratalanten eretzian erne egoitia, enganaturik izan nahi ezpada.

Ezta houn ere bakhietarat (edo feidetara) kourr ebiltia kabalen eta gaizen prezioen jakiteko; hobiago da laborantchako gasetabaten hartzia eta hoien han irakourtia eta ikhastia. Etchalte afermazaliak, etchezañ eta laborariak ez arren joan merkhatuzale beharrunez baizik, eta han ez egin gastu edo despendio behar gaberik, eta nourk bere heñari emanik den baizik. Egunko egunian, ogi eta bihi hanitch saltzeko dienek, tratiak etchen berian egiten dutie chantilloak igorraitez erostuñer, eta gero leteraz akordiak eta tratiak eginez. Zertako goure kartieleko laborari, etchezañ ogi salzalek, eztie halaber eginen ezagutzen dutien erostunekin? Saltze moda hori gomendatzekoa da gasturik eztelakoz ez eta denbora galzerik.

Eta gero, laborari hanitch kharioak, igante saintia ountsa begira; ez berbera errelijioniak hala manhatzen beiteriku, bena orano zeren iganteko phaosiak khorpitzaren osagarria emaiten derikulakoz. Thaiik gabe lanian ari den gizouna bertan konkortzen eta hingatzen da, eta eztaite luzaz irañ. Igantiak bira arren, othoitzezko, phaosatzeko, deskantsuzko eta ere, erranen duta? tchostatzeko egunak, bena libertimentu ounestetan; herriko jentia bil ditiala algar gana, mintza bite bere lanez, intresez, eta politikaz ere beharbada, kabalez eta bestelakoez, bena horik oro elizako unguria egin, errelijioneko eginbidiak bethe landan.

Herriko biltzarren eta deskantsu hoietan sortzen da eta emendatzen hurko lagunaren eta berheziki herritarren artian izan behar den maitetarzuna, oro algarganatzen gutiana. Haregatik begira bedi ihour sobera edatetik: ezi igantian, ordj eztit erranen, bena briou den gizounak handi du buria astelehenian eta eztaite lan serious bati loth; doian baratzen denak aldiz, iganteko phaosu

eta deskantsutik landan, alagera eta bihotz osoz lanari lotzeko aiher dateke.

III. — Noula lur sagarren uzta emenda.

Laboraribatek zerbait ereiten dianian, nahi luke uztaz gaintika. Haboroetan hatik, uztak baratzen zaitzo hel ahal laitekian heñaren petik, bazterrian eizten dutialakoz haien emendagarri bide erretch elibat. Houna zer izkiribatzen zian Frantziako laborarien botigoako gizoun jakintsienetarik batek, lursagar uztaren emendatzian gañen.

Diala zounbait ourthe, lur sagarren bilzian, banindagoen alhor chipi, ithegun laorden zian bati sos. Ohartu nintzan, hanche hebenche liliak mouztu nutian ondoek hanitchez haboro sagar baziela lilidunek beno ; eta gogoan igaran nian, hortan etzela deus handirik izan behar. Ezi liliak phikatzez, lantharek eztukie kanika berde uduri ekhoitzerik. Ekhoitze horietara joan litakian indarra edo sapa, bortchatu da eraichtera zañetara, eta halaz sagarrak usutuko eta edertuko dira.

Horren chouritu beharrez, bi ourtheren burian, ber alhorrian ereiten dutut ber handigoako eta ber mutatako lursagarrak. Alhorra phartiturik ber eremutako laou taolatan, bi lehenak goroztatzen dutut, bata kabale edo barne gorotzez, bestia kanpo gorotzez. Azken bi taolak baratzen dira hounkallurik batere gabe.

Ederki abiatu ziren, eta ondoek bazien lao edo bost zehetara drano. Utchura, uzta ezdeus bat nukian ! Bena handizki gainti egiten nian. Liliak agertu bezain sarri, aldepetik mouzten nutian oro, hirour, lao edo bost erhi trebesetan ; eta hargatik eizten nutian hounkitu gabe herroka batzu han heben ikhousteko zer bilhakatuko ziren bere liliekin.

Ourthe beranta beitzen, urrieta erditan joan nintzian alhorrari sobaten egitera, liliak phikatu ondoak orano berde eta eder ziren, kanikadunak aldiz oro his-

turik. Urrieta azken egunetan bildu nutianian lursagar.
rak, houna zer agitu zen.

1^{ik}, *goroztatu bi taoletan.* — Lilia mouzturik ziren
ondo bakhoitzak eman zien hamabi edo hamabost kilo
phezu ziren sagar eder aldiabat, eta hetan bazen zounbait
ahurra beno handiagoak; beste sagar haboroak eder,
chehe hanitch guti.


Aldiz lilia moutzu gabe egon ondo bakhoitzak etzian
eman sagar guti baizik, eta guziak hanitchez chehiago-
Ondoez ezten eman hirour edo laou kiloren unguniaz
goiti, bata beste.

2^o *Goroztatu gabeko bi taoletan.* — Liliak phikaturik
ziren ondo bakhoitzak etzian eman hirour edo laor kilo
sagar baizik, aski eder, bena lur goroztatan beno chehe
hanitchez haboroekin.

Liliturik zirenek eman zien bakhoitzak kilobaten heña;
ondo hetako sagar ederrenak etziren intzaor propibat
beno handiago, beste erdiak hurrak beza'n chehe.

Hortarik ageri da, dudarik batere gabe lilien idokitiak
izigarritan emendatzen diala lur sagarren uzta, eta lao
edo bostetan haboro bilzen dela. Gasturik batere gabe,
salzeko edo bere beharruntako, laborari bakhoitzak,
halaber aritez, baduke gosiaren kanpoan ezarteko lagun
hounbat. Nour berak aizinarik ezpadu, lana hounteraz
dezala emaztiari edo haorrer.





ISTORIA ETA ERASI

MONEINEN bazen leheneko denboretan ardou hanitch eta hounik ; orai ere hala dela dioie. Ourthe batez ardouak chahu huts eginik, bazen thupa aoher franko etchetan.

Egunbatez gogoala jin zeren, hiritik hullan zen mendichkabatan gañetik argizagialano gizonbat hel liraitekiala, barrika hutseki laguntzez. Arren heltu zutien gañ hartara ediren zutien barrika hutsak oro. Hasi ziren haien chuti ezarten bata bestian gañen eta Mounen̄tar harditena igaiten zen barriketan gañen. Azkena heltu zenian, goure gizonttoak haien gañetik oihu egin zian pekoer : « Ezniz etchiñi argizagialaturik ; indaziet barrikabat edo biga. » Bena etzen ihoun ere. Han ziren solazetan, zer egin behar zen igaraiten, nouiz eta batek erran beitzian : « Ale egiázko astoak ! aski duzie pian den barrika horietarik baten idokitia goiti igorteko . » Bestek arrapostu : « Hala duk ! Eta hañ sarri idoki zien azken peko barrika. Zer agitu zen ezta erran beharrik ; barrika guziak karraskaz erori eta bazter orotarat eiherratzez eskapi. Hounen khountazaliak ezteiku erran thiniko gizona zer bilhakatu zen.

*
* *

Hor nounbait Indianobatek zioan bere sor herrikobati : « Ameriketean baduzu segur errelijione ederra nahi dianarentako. » Bestiak ihardetsi zeron : « Duda gabe; han izan behar dizu hanitch ere : ezi guziek harat eroan ukhen duzie zunien errelijione khochia, eta gutiz bestiak utzultzen zirade khochu hora ere han eitzirik.

*
* *

Zouñek gezurra handiago. — Gizoun elheter batek zioan bilkhura batetan: « Mundu orotan gainti unguru unguru ebilirik niz; hanitch gaiza ikhousgarri begien aitzinian ukhen dut han heben, bena bat berheziki, ezinago espantagarri zena. Houra zen aza ondo bat hañ handia noun haren osto bakhoitzaren pian eden enen beitziren berrogeita hamar soldado bere zaldiekin, eta etserzizioak eginen beitzutien algar puchulatu gabe. »

Hori entzun zienetarik batek berhala erran zian: « Ni enuzu zu bezainbeste kourri izanik; halere Chinako alde hetan nintzarian, ikhousi nizun herri batetan bertzat izigarri handia. Hartan ehi ezariko zitizien hirour ehun idi eta beste hainbeste ahari eta aretche. » Lehenik mintzatu espantotchak hain sarri galthatzen dero: « Eta zerentako zen halako bertza? » Bestiak ihardetzi « Araoz zuk ikhousi azen egoserazteko. »

*
**

Arrapostu zozoa. Nourbaitek erraiten zian espantuz gizounbat hil zela ehun ourthetan. Bestebatek haren khantutik arrapostu: « Hori duzula mirakullia; ene aita bizi baliz balitiketzu orai seietan hogeï ourthiak. »

*
**

Behin gizounbati joan zeron ikhouztera hartzelantbat, harek oustegabetarik. Ediren zian etchaitzinian Indiako ollo ederbaten thipiltzen. Barnia aminibat utzulikatu zeron horren ikhoustiak eta gizounari erran zeron bolaturik: « Asa gero, Antoni, phakatu' gei naika, bai ala ez? » — « A Jaona, Antonik arrapostu, ountsa nahi nikezu, bena ihountik ere eztirot. Chahu akabian nuzu sosik batere ez. » Hartzelantak: « Baduka hola eni mintzatzeko bekhokia? Hi bezala sosik gabe denak eztik Indiako ollorik jaten. » Antonik ordian nigarra otsez: « A Jaona enizun haboro hounen bazkatzekorik; eta besterik ezin egin, jan baizik. »



MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laourdenez




- Ⓐ a. b. 5ⁿ, arrastiriko 20^r eta 5^{min}
 Ⓑ l. l. 12ⁿ, goizanko 6^{or} eta erditan
 Ⓒ a. o. 19ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 5^{min}
 Ⓓ a. l. 27ⁿ, arrasteko 8^{or} eta 14^{min}

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.

- Ⓐ a. b. 3ⁿ, arrasteko 11^{or} eta 6^{min}
 Ⓑ l. l. 10ⁿ, arrastiriko 1^{or} eta 24^{min}
 Ⓒ a. o. 18ⁿ, goizanko, 7^{or} eta 16^{min}
 Ⓓ a. l. 26ⁿ, goizanko 10^{or} eta 12^{min}



- | | |
|---------------------|------------------------|
| 1 Asteh. Rogaz. | J. Filipe et. Jak. Ap. |
| 2 Astiz. Rogaz. | s. Atanasi. |
| 3 Ostegun. | SALBATORE |
| 4 Ostirale. | sa Monika. |
| 5 Neskanegun. | s. Pio V. |
| 6 Igante. | J. Johane, Eb. B. L. |
| 7 Astelehen. | s. Stanizlaz. |
| 8 Asteharte. | J. Migel. agert. |
| 9 Astizken. | s. Gregori, na. |
| 10 Ostegun. | s. Antoneñ. |
| 11 Ostirale. | s. Oriens. |
| 12 Nesk. Bar. | s. Nere eta Akil. |
| 13 Igante. | PENTEKOSTE. |
| 14 Astelehen. | Johane Sala d. |
| 15 Asteharte. | s. Eutrope. |
| 16 Astiz. IV Th. B. | s. Johane Nep. |
| 17 Ostegun. | s. Paskal. |
| 18 Ost. IV Th. B. | s. Venanzio. |
| 19 Nesk. IV Th. B. | sa Pudenziana. |
| 20 Igante. 1 | TRINITATE. |
| 21 Astelehen. | s. Petiri Zel. |
| 22 Asteharte. | sa. Kiteria. |
| 23 Astizken. | s. Ubalde. |
| 24 Ostegun. | BESTABERRI. |
| 25 Ostirale. | s. Gregori VII. |
| 26 Neskanegun. | s. Filipe Neri. |
| 27 Igante. 2 | s. M. Mad. P. |
| 28 Astelehen. | s. Agosti. |
| 29 Asteharte. | s. Garzia. |
| 30 Astizken. | s. Felis. |
| 31 Ostegun. | sa Anjela. |

- | | |
|----------------------|----------------------|
| 1 Ostirale. | J. BIHOTZ SAK. |
| 2 Neskanegun. | s. Poteñ. |
| 3 Igante. 3 | sa Klotilda. |
| 4 Astelehen. | s. Frantzes K. |
| 5 Asteharte. | s. Bonifazi. |
| 6 Astizken. | s. Norbert. |
| 7 Ostegun. | s. Majan. |
| 8 Ostirale. | s. Medart. |
| 9 Neskanegun. | sa Pelajia. |
| 10 Igante. 4 | sa Margarita. |
| 11 Astelehen. | J. BARNABE, ap. |
| 12 Asteharte. | s. Johane Fag. |
| 13 Astizken. | s. Antoni Pad. |
| 14 Ostegun. | s. Basila. |
| 15 Ostirale. | sa Jermena. |
| 16 Neskanegun. | s. Frantzes R. |
| 17 Igante. 5 | s. Avil. |
| 18 Astelehen. | sa Marina. |
| 19 Asteharte. | s. Jervasi eta Prot. |
| 20 Astizken. | sa Julieta Falk. |
| 21 Ostegun. | s. Louis Gonz. |
| 22 Ostirale. | s. Pauleñ. |
| 23 Neskanegun. | s. Eusebio. |
| 24 Igante. 6. | J. JOHANE BA. |
| 25 Astelehen. | s. Eurosia. |
| 26 Asteharte. | s. Johane eta Paule. |
| 27 Astizken. | s. Prosper. |
| 28 Ostegun. | s. Irene. |
| 29 Ostirale. | J. PETIRI P. |
| 30 Neskanegun. | J. Phaoleren orh. |



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ⊙ a. b. 3ⁿ, goizanko 5^{or} eta 55^m.
- ⊕ l. l. 9ⁿ, arratseko 10^{or} eta 25^m.
- ⊕ a. o. 17ⁿ, arratseko 10^{or} eta 12^m.
- ⊕ a. l. 25ⁿ, arratseko 10^{or} eta 16^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ⊙ a. b. 1ⁿ, eguerdi eta 33^m.
- ⊕ l. l. 8ⁿ, goizanko 10^{or} eta 15^m.
- ⊕ a. o. 16ⁿ, arrastiriko 1^{or} eta 56^m.
- ⊕ a. l. 24ⁿ, goizanko 5^{or} eta 49^m.
- ⊙ a. b. 30ⁿ, arratseko 8^{or} eta 14^m.



1 Igante. 7	<i>Jes. Odol. Pr.</i>	1 Astizken.	J. Petiri katietan.
2 Astelehen.	A. B. BISTRIZ.	2 Ostegun.	s. Alfonso Lig.
3 Asteharte.	s. Gillen.	3 Ostirale.	J. Esteber. edir.
4 Astizken.	s. Leon II.	4 Neskanegun.	s. Dominiche.
5 Ostegun.	s. Zirile.	5 Igante. 12	<i>A. D. M. Elhur.</i>
6 Ostirale.	s. Trankile.	6 Astelehen.	<i>J. K. Transfig.</i>
7 Neskanegun.	s. Marzial.	7 Aste Bar.	s. Kajetan.
8 Igante. 8	^{sa} <i>Beronika.</i>	8 Astizken.	s. Ziriako.
9 Astelehen.	^{sa} <i>Elisabet, p.</i>	9 Ostegun.	s. Jermeñ.
10 Asteharte.	<i>Zazpi anaie m.</i>	10 Ostirale.	s. <i>Laorenz, m.</i>
11 Astizken.	s. Pio.	11 Neskanegun.	s. Tiburze.
12 Ostegun.	J. Johane Galb.	12 Igante. 13	^{sa} <i>Klara.</i>
13 Ostirale.	s. Anaklet.	13 Astelehen.	^{sa} <i>Radegonda.</i>
14 Neskanegun.	s. Bonaventura	14 Asteharte.	s. Eusebi.
15 Igante. 9	s. <i>Johane Maj.</i>	15 Astizken.	<i>A. D. M. MARIA Zel.</i>
16 Astelehen.	<i>A. D. M. KARM.</i>	16 Ostegun.	s. Rok.
17 Asteharte.	s. Aletsis.	17 Ostirale.	^{sa} <i>Emilia.</i>
18 Astizken.	s. Kamille.	18 Neskanegun.	^{sa} <i>Elena.</i>
19 Ostegun.	s. Bizente Paolo.	19 Igante. 14	^{sa} <i>Filomena.</i>
20 Ostirale.	s. Filibert.	20 Astelehen.	s. Bernat.
21 Neskanegun.	^{sa} <i>Pratseda.</i>	21 Asteharte.	s. <i>Julien, Lesk.</i>
22 Igante. 10	^{sa} <i>M. Maidalena.</i>	22 Astizken.	s. Ipolita.
23 Astelehen.	s. Apolinari.	23 Ostegun.	s. Filipe Ben.
24 Asteharte.	s. Henrik.	24 Ostirale.	J. BARTTOL. a.
25 Astizken.	J. JAKOBE, <i>ap.</i>	25 Neskanegun.	s. Louis, erreg.
26 Ostegun.	^{sa} <i>Aña.</i>	26 Igante. 15	<i>A. D. M. Bib. S.</i>
27 Ostirale.	s. Galatori.	27 Astelehen.	s. Jusef. Kal.
28 Neskanegun.	s. Nazari eta Zelze.	28 Asteharte.	s. Agosti.
29 Igante. 11	^{sa} <i>Marta.</i>	29 Astizken.	<i>J. Job. Lephom.</i>
30 Astelehen.	s. Abdon.	30 Ostegun.	^{sa} <i>Rosa Lima.</i>
31 Asteharte.	s. <i>Inazio Loyola.</i>	31 Ostirale.	s. Remoun N.



BURUILA edo SETEMER

URRIETA


Eg. Ilaburtzen dira or. eta 3/4 ez.

Eg. Ilaburtzen dira oien i eta erdiz.



- ☉ l. l. 7ⁿ, goizanko 1^{or} eta 12^{min}.
- ☽ a. o. 15ⁿ, goizanko 4^{or} eta 31^{min}.
- ☿ a. l. 22ⁿ, eguerdi eta 42 min.
- ♁ a. b. 29ⁿ, goizanko 5^{or} eta 53^{min}.

- ☉ l. l. 6ⁿ, arratseko 7^{or} eta 11^{min}.
- ☽ a. o. 14ⁿ, arratseko 6^{or} eta 50^{min}.
- ☿ a. l. 21ⁿ, arratseko 7^{or} eta 5^{min}.
- ♁ a. b. 28ⁿ, arratseko 6^{or} eta 7^{min}.



- 1 Neskanegun. | s. Bizente ap. m
- 2 **Igante.** 16 | s. Eztebe, erreg.
- 3 Astelehen. | s. Lizier.
- 4 Asteharte. | s^a Franz. Chant
- 5 Astizken. | s. Laorenz J.
- 6 Ostegun. | s. Onesifore.
- 7 Ostirale. | s. Zebero.
- 8 Neskanegun. | A. B. SORTZIA.
- 9 **Igante.** 17 | A. B. Izen Saint.
- 10 Astelehen. | s. Nikolas, I.
- 11 Asteharte. | s. Hiazinte.
- 12 Astizken. | s. Gi.
- 13 Ostegun. | s^a Eujenia.
- 14 Ostirale. | D^{na} Khurutze.
- 15 Neskanegun. | s. Nikomede.
- 16 **Igante.** 18 | A. B. DOLOR.
- 17 Astelehen. | s. Franz. Zaor.
- 18 Asteharte. | s. Josef Kup.
- 19 Astizk. IV Th. B. | s. Janvier.
- 20 Ostegun. | s. Eustache.
- 21 Ostir. IV Th. B. | J. MATHIU, Eb.
- 22 Nesk. IV Th. B. | s. Maur.
- 23 **Igante.** 19 | s^a Tekla.
- 24 Astelehen. | A. B. Librazalia.
- 25 Asteharte. | s. Austinde.
- 26 Astizken. | s. Tomas Vill.
- 27 Ostegun. | s. Kosme eta Dam.
- 28 Ostirale. | s. Fauste.
- 29 Neskanegun. | J. MIGEL, ARK.
- 30 **Igante.** 20 | s. Jeronimo.

- 1 Astelehen. | s. Remi.
- 2 Asteharte. | Ainguru Begir.
- 3 Astizken. | s. Exupero.
- 4 Ostegun. | s. Franzes. As.
- 5 Ostirale. | s. Venzeslaz.
- 6 Neskanegun. | s. Bruno.
- 7 **Igante.** 21 | ARRUSARIOA
- 8 Astelehen. | s^a Birjita.
- 9 Asteharte. | s. Denis.
- 10 Astizken. | s. Franzes Bor.
- 11 Ostegun. | s^a Sabina.
- 12 Ostirale. | s^a Dompina.
- 13 Neskanegun. | s. Edoart.
- 14 **Igante.** 22 | A. B. Amatarz.
- 15 Astelehen. | s. Teresa.
- 16 Asteharte. | s. Bertran.
- 17 Astizken. | s. Edvije.
- 18 Ostegun. | J. LUK Ebanj.
- 19 Ostirale. | s. Grat. Olor.
- 20 Neskanegun. | s. Johane K.
- 21 **Igante.** 23 | A. B. Garbitarz
- 22 Astelehen. | s. Petiri, Alk.
- 23 Asteharte. | s. Leotade.
- 24 Astizken. | s. Rafael, ark.
- 25 Ostegun. | s. Krespeñ.
- 26 Ostirale. | ARREROSLIA.
- 27 Neskanegun. | s. Fronton.
- 28 **Igante.** 24 | A. B. Patron.
- 29 Astelehen. | s^a. Eusebia.
- 30 Asteharte. | s. Kazieñ.
- 31 Astizken. Bar. | s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA

Egunak llaburtzen dira orenez.




- ☽ l. l. 5ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 25^m
 ☿ a. o. 13ⁿ, goizanko 7^{or} eta 58^m
 ☿ a. l. 20ⁿ, goizanko 2^{or} eta 18^m
 ☿ a. b. 27ⁿ, goizanko 9^{or} eta 4^{min}

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.


- ☽ l. l. 5ⁿ, eguerdi eta 25^m
 ☿ a. o. 12ⁿ, arratseko 7^{or} eta 55^m
 ☿ a. l. 19ⁿ, goizanko 11^{or} eta 25^m
 ☿ a. b. 27ⁿ, goizanko 2^{or} eta 29^m



- 1 Ostegun.
 2 Ostirale.
 3 Neskanegun.
 4 **Igante.** 25
 5 Astelehen.
 6 Asteharte.
 7 Astizken.
 8 Ostegun.
 9 Ostirale.
 10 Neskanegun.
 11 **Igante.** 26
 12 Astelehen.
 13 Asteharte.
 14 Astizken.
 15 Ostegun.
 16 Ostirale.
 17 Neskanegun.
 18 **Igante.** 27
 19 Astelehen.
 20 Asteharte.
 21 Astizken.
 22 Ostegun.
 23 Ostirale.
 24 Neskanegun.
 25 **Igante.** 28
 26 Astelehen.
 27 Asteharte.
 28 Astizken.
 29 Ostegun.
 30 Ostirale.

- DONISANTORE.
Purg. Arimak.
 s. Zebero.
Errelikia sk
 s. Zakaria.
 s. Léonart.
 s. Florent.
 s. Martirak.
 s. Teodoro.
 s. Andreu Av.
 ELIZEN SAKR.
 J. MARTINE.
 s. Stanizlaz K.
 s. Josafat.
 s. Jertruda.
 s. Edmon.
 s. Gregori Taum.
 s. Odon.
 sa Elisabet Hgr.
 s. Félix, Valesi.
A. B. Eskentzia
 sa Zezila.
 s. Klement.
 s. Johane Kh.
 sa Katalina.
 s. Petiri, Al.
 s. Virjile.
 s. Maurino.
 s. Saturnino.
 J. ANDREU, Ap.

- 1 Neskanegun. | s. Eloi.
 2 **Igante.** | ABENTUKO 1^a
 3 Astelehen. | s. Frantzés Xab.
 4 Asteharte. | s. Barbara.
 5 Astizken. | s. Sabas.
 6 Ostegun. | s. Nikolas.
 7 Ostirale. | s. Ambrosi.
 8 Neskanegun. | A. B. KONZEP.
 9 **Igante.** | *Abentuko* 2^a
 10 Astelehen. | sa Eulalia.
 11 Asteharte. | s. Daniel.
 12 Astizken. | s. Melkiade
 13 Ostegun. | sa Luzia.
 14 Ostirale. | s. Arzene.
 15 Neskanegun. | s. Mismeñ.
 16 **Igante.** | *Abentuko* 3^a
 17 Astelehen. | s. Lazaro.
 18 Asteharte. | s. Gazieñ.
 19 Astiz. *IV Th. B.* | s. Urbeñ.
 20 Ostegun. | sa Julia.
 21 Ostir. *IV Th. B.* | J. TOMAS, Ap.
 22 Nesk. *IV Th. B.* | s. Flavieñ.
 23 **Igante.** | *Abentuko* 4^a
 24 Astel. *Bar.* | sa Delphina.
 25 Asteharte. | E GUBERRI.
 26 Astizken. | J. EZTEBE, m.
 27 Ostegun. | J. JOHANE, Eb.
 28 Ostirale. | *Haour Inoz.*
 29 Neskanegun. | s. Tomas, Kant.
 30 **Igante.** | s. Manzueta.
 31 Astelehen. | s. Silbestre.



Elections législatives du 20 Août 1893

Etcheverry. Berdoly

Canton de Baïgorry.

Aldudes.....	120	62
Anhaux.....	54	52
Ascarat.....	25	49
Banca.....	115	35
Bidarray.....	121	101
Trouléguys.....	49	18
Lasse.....	75	42
Ossès.....	312	116
Baïgorry.....	403	153
Urepel.....	102	16
Totaux..	1376	644

Canton d'Holdy.

Arhansus.....	10	16
Armendaritz.....	115	30
Bunus.....	12	47
Hélette.....	137	93
Hosta.....	51	18
Ibarrolle.....	42	7
Holdy.....	114	70
Irissarry.....	138	120
Juxe.....	33	45
Lantabat.....	90	25
Larceveau.....	57	52
Ostabat.....	17	66
Saint-Just.....	70	48
Suhescun.....	37	23
Totaux..	923	660

Canton de Mauléon.

Ainharp.....	13	52
Arrast.....	25	32
Aussurucq.....	90	36
Barcus.....	219	163
Berrogain.....	6	27
Charrite.....	10	76
Chéraute.....	111	128
Espés.....	6	117
Garindein.....	39	33
Gotein.....	40	64
Idaux.....	29	49
L'Hôpital.....	14	24
Mauléon.....	110	305
Menditte.....	35	46
Moncayolle.....	53	79
Muscudy.....	33	57
Ordarp.....	118	56

Etcheverry. Berdoly

Roqueiague.....	34	20
Viodos.....	42	94
Totaux..	1027	1458

Canton de St-Jean-Pied-de-Port

Ahaxe.....	97	25
Aincille.....	35	30
Ainhice.....	53	9
Arnéguy.....	45	63
Béhorléguys.....	23	22
Bussunaritz.....	48	25
Bustince.....	29	20
Caro.....	24	14
Esterencuby.....	72	36
Gamarthe.....	39	11
Ispoure.....	33	75
Jaxu.....	50	27
Lacarre.....	27	20
Lecumberry.....	82	19
Mendive.....	57	52
Saint-Jean-le-Vieux.....	162	33
St-J.-P.-de-P.....	94	202
St-Michel.....	54	33
Uhart-Cize.....	67	58
Totaux..	1091	774

Canton de Saint-Palais

Aïciritz.....	5	55
Amendeuix.....	30	65
Amorotz.....	42	36
Arberats.....	45	13
Arbouet.....	59	47
Aroue.....	28	47
Arraute.....	48	118
Béguios.....	58	45
Béhasque.....	18	61
Beyrie.....	39	113
Camou Mixe.....	10	69
Domézain.....	89	127
Etcharry.....	4	76
Gabat.....	3	65
Garris.....	43	23
Gestas.....	25	21
Iharre.....	32	39
Ithorrotz.....	33	4
Labets.....	51	34
Larribar.....	12	50
Lohitzun.....	38	33
Luxe.....	33	48

Etcheverry. Berdoly

Maspararute.....	70	27
Orègue.....	120	96
Orsanco.....	4	43
Osserain.....	7	97
Pagolle.....	66	41
Saint-Palais.....	73	301
Uhart-Mixe.....	1	90
Totaux.....	1091	1884

Canton de Tardets


Alçay.....	81	58
Alos-Sibas.....	42	70
Camou-Soule.....	43	21

Etcheverry. Berdoly

Etchebar.....	20	27
Haux.....	14	38
Lacarry.....	57	65
Laguinge.....	39	31
Larrau.....	35	168
Lichans.....	13	34
Licq.....	18	137
Montory.....	90	128
Ossas.....	17	38
Ste-Engrace.....	68	157
Sauguis.....	36	56
Tardets.....	63	151
Trois-Villes.....	9	49
Totaux.....	645	1228



Edirengia



I. Aita Sainiaren erakouspenak.....	33
II. Julien enperadore arnegata.....	36
III. Jaon Lavigerie kardinala.....	38
IV. Legarrak eta Frantziako zorra.....	41
V. Fabriketako lege berria.....	44
VI. Aphezak soldado.....	48
VII. Santa Graziaren istoria.....	52
VIII. Laborantchaz :	
1 ^{ik} Uztak 1893 ^{an}	56
2 ^{ik} Laborarier aholku.....	59
3 ^{ik} Noula emenda lur sagar uzta.....	61
IX. Isteria eta erasi.....	63